

## **BERTSOEN TXOKOA**

### **MIREN TOLARETXIPI LIZARRALDERI GURE AGUR ETA ESKER ONA**

Udan, opor garaian isil-isilik utzi zenuen hainbeste maite zenuen lurra. Abuztuaren 9an. Ustekabean harrapatu gintuen. Denborarekin eta zure hutsuneak bultzaturik, gure barruko sentipenetik ari gatzaizkizu.

Giputza, Donostiarra, esango genuke zure jardueretan agertzen zenuen bezala, Euskal Herri osoko ekintzaile handia zinela.

Frankismoko unerik gogorrenak ezagutzea egokitu zitzaizun, beste askori bezala; gerra bera eta gerra ondoko zapalkuntza mota guztiak. Ekintzaile nekaezina izan zara zendu zaren arte.

Gizarte hobearen aldekoetan beti alderdi solidarioa erakutsiz. Uneko erlijio eta gizarte erakundeetan zure izaera militantea argi utziz. Elkarte desberdinetako partaide, gizartekoak eta erlijiozkoak, kultura eta euskarazkoak.

Donostian. Martuteneko Ikastola sortzen lagundu zenuen 1969an, irakasle bezala. Zarautzen ere andereño. Irakasle lanari, bestelako lan ugari erantsiz jarraitu duzu, erlijiozko elkarteetan ere kide aktiboa izan ohi zinen. Fede lagunak” edo ARAMI”n taldekide izan zintugun eta eragile sozial eta kulturaletan ere bai. Zu zeure ingurukoetan, gu bakoitza geure ingurukoetan. Mintza laguna, Elkarri eta Groseko Auzo Euskal presoen aldeko

ekintzetan tinko, pankartan, Arantzazuko urteroko presoan aldeko ekintzetan aktiboki, hortxe izan zaitugu.

Gogoan dugu oraindik, ikastolako lanetatik jubilatutako zineneko eta nola ospatu genuen afari ederraz. Han eskaini genizun ondo merezitako ospakizuna lore xorta eta guzti. Hona orduko lore xortarekin batera gure bertsoak:



**AGUR ETA ESKERRIK ASKO  
MIREN TOLARE MAITEA**

Uda garaian deia  
etxetik aparte  
gure Miren hil dela  
jakitun zarete?  
entzuteaz batera  
tristatu aldarte,  
agurtzen joan ginen  
lagun eta elkarte.

Agurrik ezin esan  
bihotzean pena,  
andereño zein kide  
indartu kemena,  
Miren Tolare gabe  
tristerik barrena,  
sentikortasun handiz  
bizi dugu dena.

*Maitasunez, FEDE LAGUN TALDEAK*